

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2007ko abenduak 3

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava



EUSKADIKO UDALEN ELKARTE
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCO

Euskal gizarteak, mundu mailako eskalara egokitzeko gauzatzen ari den etengabeko eginahalean, lehen mailako eginkizuna du euskararen erabilera normaltzea. Izan ere, euskara bizi noranahikoaren oparia da euskal herritarrok unibertsaltasunari eskain diezaiokegun baliorik preziagarriena, kultur aniztasun eta identitate ugari eta konpartituen aroan.

Zeregin ugari biltzen ditu bere baitan era dinamikoan ulertu behar den euskararekiko konpromiso horrek, eta denak dira, ez bairik gabe, garrantzitsuak. Urrats sendoak eman dira, adibidez, irakaskuntzan, euskara jakintza eta ezaguerarako hizkuntzatzat finkatuz. Sare zabal sarria da hedabideen alorrean euskara ehuntzen ari dena. Etengabe eguneratzen ari da euskara heldutakoan ikasi edota landu behar dutenentzako eskaintza...

Hau da, era guztiz eraginkorrean mami-tzen ari da euskal gizarte eta herri erakundeen arteko lankidetza euskararen ezaguerari dagozkion eremuetan, hizkuntz bilakaera neurtzen duten adierazleek garbi asko azaltzen dutenez. Eta ahalegin horren arrakas-

tatik datorkigu hain zuzen, euskal gizarteari bezala baita herri erakundeoi ere, gaur egun erabateko arreta eskatzen digun erronka erabakigarria: egunez egun euskaldunagoa den gizarte honetan, elkar hartuta gainditu behar ditugu ohitura eta joera zaharkituek euskararen eguneroko erabilerari jartzen dizkioten traba eta oztopoak.

Erabilera baita, azken batean, edozein hizkuntzaren etorkizunaren giltzarria. Erabilerarako aukera eraginkorra delako, elkarrenganako errespetuarekin batera, hizkuntz eta hiztunen arteko elkarbizitza berma deza-keen itun bakarra.

Baina ezinbestekoa da gogoan hartzea honaino ekarri gaituen bidea, gogoetarako gai egokia eskaintzen baitigu, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen ari garen honetan. Izan ere, aurtan bete dira hogeita bost urte Euskararen Legea onartu zenetik, eta hura bide-makulu hartuta egin dugu honainoko ibilbidea.

Lege hark garrantzia handieneko mugarrria jarri zuen euskararen normalkuntzarako bidean, herritarren hizkuntz eskubideak

onartu eta haien zaintza eta sustapena agintea publikoari emanaz. Ezinezkoa litzateke euskararen erabilera normaltzearen eginkizunari ekin, duela hogeita bost urte Eusko Legebiltzarrak ezinbesteko zutabe horiek ezarri izan ez balitu.

Nahitaezkoa da, beraz, lege baliabide horren balorazioa egiterakoan, haren eragina guztiz positiboa izan dela eta dela go-goan hartzea. Eta hori aitortzearekin batera, guztiz premiazkoa da, mende laurden bat geroago ospatzen ari garen Euskararen Nazioarteko Eguna honetan, araudi haren baliorik sendoena goraiatzeko: euskararen normalkuntzaren alorrean sekula ezagutu den adostasun zabalenez onartu zen lege hark, gizartean zegoen —eta dagoen— elkarbizitzarako erabaki irmoa islatzen du. Opari ezin hobea, zalantzarik batere gabe, orduko eta ondorengo belaunaldientzat.

Balio berezia du, gaur, adostasun zabal eta sakon haren aipamena egiteak, etengabekoa baita kontsentsu haren oinarri zibilak birrintzeko ahalegina, mutur batetik zein bestetik elebakartasunaren amesgaiztoaren liluran tematzen direnen aldetik. Garbi aldarrikatu behar dugu: elkarbizitza bestearen amore emate baldintzagabearen baitan jartzen dutenak dira, ikuspuntu hori aldatu ezean, euskararen normalkuntzaren aldeko lankidetzan tokirik ez duten bakarrak.

Gainerakook, berriz, izan ditzakegu —eta baditugu— gure artean iritzi eta sentiberatasun ezberdinak, baina, haien gainetik, adostasun hura etengabea zabaldu eta sakontzea dugu helburu nagusia, eta gai gara —eztabaidatuz adosten dakigulako— gure aurrean dugun erronkari eusteko: euskararen erabi-

lera aragotzeko eguneroko jardunean geuk —gutariko bakoitzarengan, gizarte zibilaren kolektiboetan eta herri erakundeetan tinko erroturiko inertzien bidez— sortzen ditugun oztopoak paretik kentzea, eleaniztasunerako bidea zabal dezagun.

Helburu horretarako gure gizarteak bere buruari eskaini dion marko juridikoak eginkizuna ahalbidetzen digu, ez bairik gabe. Izan ere, gaur egun ez dago, euskara biziberritzeko lanetan, gizartearen gehiengoak egin nahi lukeen ezer edo eman nahi lukeen pausurik Euskararen Legeak eragozten duenik. Are gutxiago dago, euskararen normalkuntzaren historia osoan, arau hark baino adostasun zabalagorik bereganatu duen proposamen edo egitasmorik. Eta geuri, euskal herritar eta herri erakundeoi dagokigu Euskararen Legeak bere baitan dituen ahalmen ugariak era progresibo eta orkatuan garatzea, bi norabide nagusitan: euskara erabiltzeko aukera berriak sortzea eta lehenagotik daudenak sendotu eta garai berrietara egokitzea; eta, herritar bakoitzaren hizkuntz aukerarekiko errespetu osoz, euskara eguneroko eginkizunetan erabiltzearen aldeko jarrera eta jokoa sendotzea. Izan ere, urteotako jardunean aski ongi ikasi dugumez, “*pixka bat es mucho*”, ez baitago ekarpen txikiarik norabide egokian abiatutako hizkuntz normalkuntzaren eginkizun elkartasunez partekatuan.

Horixe da, beraz, elkarbizitzak eskatzen digun ahalegina: euskararen erabileraren aldeko politika orekatu bat, zentraltasunean finkatua eta muturretako tentazio antzuetatik urrutiratua. Gure buruari eta belaunaldi berriei zor diegu, eta hala aldarrikatzen dugu Euskararen Nazioarteko Egunean.